



Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

NATXO MOSTEIRO ROBREDOK, HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMEAN EZARRITAKO B1, B2, C1 ETA C2 MAILAK EGIAZTATZEKO JARRAIBIDEAK BURUTZEKO AZTERKETA-BATZORDEAREN IDAZKARIA DEN ALDETIK, ZERA

EGIAZTATZEN DU:

Azterketa-batzordeak, 2026ko ekainaren 16an egindako bileran, honako erabaki hauek hartu dituela:

LEHENA.- Argitara ematea 2026ko uztailaren 17an deialdi irekiaren, HOBE deialdiaren eta euskaltegi bidezko deialdiaren 2026ko lehenengo azterketaldiko Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren B1, B2, C1 eta C2 mailak egiaztatzeako idazmeneko eta irakurmeneko proben emaitzak eta emaitza orokorrak.

BIGARRENA.- Erreklamazioak edo/eta berrikuspen-eskaerak egiteko epea irekitzea 2026ko uztailaren 20etik 22ra, biak barne.

Erreklamazioak eta berrikuspen-eskaerak 2025eko abenduaren 23ko HABEren zuzendariaren Ebazpenaren II. eranskineko 14. Oinarriari, 2026ko otsailaren 6ko HABEren zuzendariaren Ebazpenaren I. Eranskineko 13. Oinarriari eta 2026ko martxoaren 18ko HABEren zuzendariaren Ebazpenaren I. Eranskineko 13. Oinarriari jarraikiz, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduaren 17. artikulua arabera izapidetuko dira.

Donostian, 2026ko uztailaren 16an

Oniritzia

Batzordeburua

Idazkaria

Xabier Balerdi Tolosa

Natxo Mosteiro Robredo